

# ETB-1 ISPILUAN: PROGRAMAZIOA ETA EDUKIA

E. Arana, J. Amezaga, J. I. Basterretxea & A. Iturrioz

Gizarte eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko irakasleak Euskal Herriko Unibertsitatean.

## Abstract:

*This article deals with the programs broadcast on Channel 1 of Euskal Telebista. It is precisely through these programs and their content that one is able to know which image of the Basque country is offered to the viewers of this channel. As we are especially interested in the role played by the media in the development of collective identities, we analyzed the content of the programs shown on ETB-1 (the Basque National Television Channel which broadcasts in the Basque language). In order to do this, we studied the characters, places and plots which feature in the programs of ETB-1.*

## Laburpena:

*Artikulu honetan, Euskal Telebistaren lehen kanalaren programazioa bere osotasunean eta bertan aurkitzen diren programen edukiak aztertzen dira. Izan ere, programa-eskaintzan eta hauen edukietan ageri diren elementuen bidez, jakin daiteke zelakoa den ikuslegoari eskaintzen zaion Euskal Herriaren errepresentazioa. Hedabideek identitate kolektiboa sortu eta osatzerakoan duten zereginean, edukiak ematen duten informazioa aprobetxatu nahi izan dugu. Horretarako, programazio parriletan aurkitu daitezkeen genero desberdinak eta Kirolak, Albistegiak, Fikzioa eta gainontzeko generoen edukietan barrena aritu gara ageri diren pertsonaiak, lekuak, ekintzak eta gaiak nolakoak diren jakin guran.*

## Hitzaurrea.

Telebista kanal batek pantailaratzen duen programazioa da, beste batzuen artean, populazioaren interesen eta gustuen interpretazioan oinarritutako produktua, iragarleei saldu ahal izango zaizkien audien-tziak erakarriko dituen bidea eta kanalaren arduradunek eraiki gura duten marko erreferentzialaren eta helburu estrategikoen isla.

Elementu hauek euskarazko Euskal Telebistan nola ageri diren jakin guran abiatu ginen ikerketa hau egin asmoz. Horretarako, ETBren lehen kanalaren eskaintza aztertu dugu 1998ko udaberrian, aste konposatu bat osatzen zuten zazpi egun aukeratuz: apirilaren 20 eta 28; maiatzaren 6, 14, 22 eta 30 eta ekainaren 7a.

Aipaturiko egunak erabiliz, ETB-1en egun osoko programa-eskaintza ikertu dugu lehenengo eta prime-timean sakondu gero. Horrez gain, beste generoetan ez bezala, Albistegietan murgildu gura izan dugu gehiago, bertan ageri diren gaiak, pertsonaiek, esparru geopolitikoei eta bestelako osagarri formalei erreparatu.

Modu honetara, ETB-1en programazioak, orokorrean eta Albistegietan partikulariki, erakusten dituen berezitasunak eta eraiki-tzen duen Euskal Herriaren errepresentazioa nolakoak diren aztertu ahal izan ditugu.

## **1. Programazioaren azterketa.**

ETB-1ek pantailaratzen dituen produktuen azterketa egin ahal izateko hauek dira kontuan hartuko ditugun sei osagarriak:

-edukiak Euskal Herriarekin zerikusia ote duen, -generoa (Fikzioa, Albistegia, Magazina, eta abarrak), -programaren emisio maiztasuna (egunerokoa, asterokoa ala noizbehinkakoa), -lehen aldiz emititua ala errepikatua, -non ekoiztua eta -hizkuntza.

Aldagai hauek zenbaterainoko pisua duten aztertu dugu, lehenik eta behin, egun osoa landuz eta gero prime-timean zentratuz. Ondoko bi azpiataletan azterketaren emaitzak ageri dira, labur-laburrean.

### *1.1. Programazioaren ikuspegi orokorra.*

Euskal Telebistaren lehen kanalak hogeita lau orduetara zabaldu du bere emanaldia eta lehen begiradan, emisio orduen %72,2a Euskal Herriarekin erlazionaturiko gaiak, pertsonaiak edo tokiak erabiliz burutzen duela ziurta daiteke. Hurbiltasun tematikoa ala tratamenduarekikoa nagusi da Albistegia, Euskal Kultura Tradizionala, Lehiaketa, Erljioa, Euskara eta Promoetan. Aldiz, Euskal Herriarekin zerikusirik ez duten programen artean Umorea da generorik oparoena eta honen atzetik datoz Erreportaiak, eta Haur/Gazteentzakoak.

ETBren euskarazko kanalean gehien ageri diren generoen bidez (hauetariko bakoitzari dedikaturiko minutuen portzentaia neurtuz) eta generoen baitan aurkitu daitezkeen programek izaten duten emisio-maiztasunaren bidez (egunerokoa, asterokoa ala noizbehinkakoa) perfilatzen da zelakoa den programa-eskaintza.

ETB-1ek pantailaratzen dituenen artean lau dira nagusitzen diren generoak: Haur/Gazteentzakoak (%24,4), Kirola (%18,1), Magazina (%13,9) eta Erreportaia/Dokumentala (%11,1). Lehen mailako multzo honen atzetik datoz, besteak beste, Fikzioa (%8,5), Albistegia (%6,4), Kultura Tradizionala (%4,5) eta Lehiaketa (%3,9). Azkenik, portzentualki askozaz ere apalago daude: Promoa (%3), Iragarkia (%2,5), Erljioa (%0,9), Euskara (%0,8) eta abarrak. 1.- Grafika: ETB-1en egun osoko programazioa generoka (1998)

Datu hauek beste modu batera irakurriz, hiru multzo nagusitzen dira ETB-1en zereginean: Haur/Gazteentzakoak (%24,4), egunerokotasunaz lotuta dauden Albistegia/Kirola (24,5) eta testuinguru informazioa erabiltzen duen Magazina/Erreportaia/Dokumentala (%25). Atzerago datoz, Fikzioa (%8,5) eta Kultura Tradizionalari gehi Euskarari (%5,4) eskainitako portzentaia. Birsailkapen honi jarraiki, beti ere aktualitate puntualak zein kontestualak gehituz, programazio orduen erditik gora (%54,9) eskuratzen du (albistegiak, kirolak, erreportaiak eta dokumentalak sartuta multzo honetan) eta fikzioak eta haurrentzako programek heren bat (%32,9). Gainontzeko programa motek, Kultura, Erljioa, Lehiaketa zein Umorea elementu definigarri modura hartzen dutenak, gehi publizitarioen presentziak ez du %12,2ko kopurua gainditzen.

Aztergai dugun kanalaren emisio maiztasunari dagokionez, programen %53,4a egunerokoak dira, %22,6a asterokoak eta gainontzeko %24a noizbehinkako maiztasunaz pantailaratzen dira. Beraz, programazio parrilari begiratuta esan daiteke ETB-1ek darabilen eredia egunero Lehiaketa, Albistegia, Fikzioa, Haur/Gazteentzakoak eta Magazina generoetako programa banaz behintzat osatzea dela. Egunerokoak diren zita hauei, astero eta noizbehinkako maiztasunaz pantailaratzen dituzten Kirol saio eta erretransmisioak eta Erreportaia gehituz gero, borobiltzen da bere programazio osoa. Aipatu dugun "noizbehinkako" programa horien artean daude Umorea, Euskal Kultura Tradizionala, Kirola eta Erreportaia generokoak.

ETB-1en ageri diren generoei eta saioen emisio-maiztasunei programak zenbateraino errepikatzen diren gehituz gero, borobiltzen da kanalaren emisio-egiturari ematen ari gatzazkion ikuspegiari. Esaterako, hamar emisio orduetatik sei lehen aldiz emitituriko programez osatua da, baina gainontzeko lauak

errepikatuez. Errepikapenak, gehien bat, Lehiaketa, Euskara ("Hitzaro") eta Erreportaia ("National Geographic", "Transizioa Euskadin" eta "Añamendietan") genero gisa definituriko programetan ematen da nagusiki, noski Karetak, Promoak eta Iragarkiak behin eta berriro pantailaratuak izaten dira. Neurri handi batean beraz, ETB-1ek errepikapenetan oinarritzen du bere egun osoko programa eskaintza.

Behin bakarrik aireratzen diren programen artean, nola ez, nagusi dira Albistegia, Erljioa (meza katolikoa), Kirola eta Hau/Gazteentzako ("Super Bat") generoetakoak.

Euskal Telebistaren lehen kanalak emititzen dituen programa gehienak (batazbeste %69,9a) Euskal Herrian ekoiztuak dira. Jatorriz hemengoak kontsideratu ditugun programen artean Albistegia, Euskal Kultura Tradizionala ("Gure Lanbideak", "Hitzetik Hortzera" eta dan-tza zein herri musika erretransmisioak), Euskara, Erljioa, Fikzioa eta Magazina ("Aire Aire", "Jaiak 98" eta "Bertatik Bertara", besteak beste) generoetakoak dira nagusi. Aitzitik, kanpoan burutuak izan eta bere horretan emititu ala itzulpen hutsaren ostean pantailaratuak izan direnen artean gehienak Erreportaia, Iragarkia eta Umorea generoetakoak dira.

Edozelan ere, euskara %97,1ena elebakar modura duen kanalean, espero zitekeenez, programetan jorratzen diren edukiek Euskal Herriarekin zerikusia daukate.

Beraz, pasarte hauetan esan dugun bezalaxe ETB-1en programa-parrilak bere edukietan Euskal Herriaren erreferentzialtasuna gorde-tzen du. Programazio horretan, nagusi dira aktualitateari kasu egiten dizkieten saioak (albistegiak, eta kirolak) eta informazio kontestualak eskaintzen dituztenak (dokumentalak, magazinak eta erreportaiak). Haur/Gazteentzako programazioa da, hala ere, generorik oparoena. Gainera, hamar ordutik zazpi Euskal Herrian ekoiztutako produktuez osatzen du ETB-1ek. Eguneroko ala astero emititzen diren programez borobiltzen du bere emisio parrila eta errepikapenak emisio denboraren %40a eskuratzen du.

### *1.2. Prime-timearen berezitasunak.*

Egun osoko emisioa aztertuz aipatutako ñabardurak ez dira modu berean aurkitzen prime-timean. Audientzia aldetik eguneko garrantzi-tsuena diren ordu horietan (20.30-24.00) hainbat berezitasun suma daitezke, esaterako: genero gutxiago agertzen dira prime-timean eta Kirola gainontzeko guztiek baino ordu gehiago eskuratzen ditu.

Ordu horietako programa eskaintza espektakularizatzeko joera izaten ohi dutenez mundu guztiko telebistetan, ETB-1ek ere Kirolaren (%35,7), Fikzioaren (%22,3) eta Magazinen (%17,2) kopurua puztu egiten ditu, entretenitzea helburu duen parrila osatuz. Hiru hauen bidez prime-timeko ordu gehienak bete izanak dakar, gainera, Haur/Gazteentzako eta Erreportaia generoetako programak desagertaraztea. Beraz, koalitatiboki ere asko aldatzen da iluntzeko "urrezko ordu" horietariko eskaintza. Albistegien (%10,8) presentzia, egun osoan eskuratuko duenaren antzerako mailan mantentzen da.

Goiko irudian ageri denez, entretenitzea zeregin gisa definitua duen programazioari (Kirola, Fikzio eta Magazina) so eginez, emisio orduen kopurua %75,2ra heltzen dela ikusten da.

Prime-timean, bestalde, egun osoko emisioan agertu diren hainbat ñabardura azpimarratu egiten dira: Euskal Herrian ekoizturiko programen presentzia altua (%84,4), Euskal Herriarekin zerikusia duten gaiak, pertsonaiak edo lekuak (%78,3) eta emisio hizkuntza euskara izatea ia ehuneko ehunean.

Hala ere, aipatzekoa da prime-timea dela errepikapenetatik libre den lurralde bakarra. Bertan aireratzen diren programa gehienak, %86,5ean, behin bakarrik ikusi ahal izango dira. Horren atzetik, zalantzarik gabe, Kirolaren pisutzarra dago<sup>3</sup>. Modu berean, prime-timean programak kokatzerakoan, eguneroko frekuentzia altua den arren (%46,3) gora egiten du asteroko zein noizbehinkako emisioena, hemen ere kirol erretransmisioek eduki dute eragina.

## **2. Albistegietako edukietan miatuz.**

Programazio-parrilaren bidez, telebista kanalak aintzakotzat har-tzen dituen generoak eta xede-taldeak zeintzuk dituen ikus daitekeen bezala, albistegietan erreferentzialak kontsideratuak izaten dituen faktore

sozialak (pertsoneiak, esparru geopolitikoak, e.a.) azaleratzen dira. Gure kasuan, artikulua honen lehen zatian ETB-1en programazioaren marko orokorra ikusi ahal izan dugun legez, bigarrenean, albistegiaren bidez "errealak" deitu izaten denaren lurraldea, aktoreak eta gaietan sakonduko dugu. Izan ere, albistegiak ez dira izaten bakarrik notiziez osaturiko ordu erdi inguruko saio batzuk baizik eta kanalak bere inguruneaz duen iritzia eta interpretazioa ondoen erakusten duten programa motak. Informazio saioetan eskaintzen zaizkigun pertsoneien, gaien eta lurraldeen bidez jakin dezakegu zelakoa den ETB-1ek Euskal Herriaz egiten duen definizioa eta errepresentazioa.

Ikerketaren atal hau garatu ahal izateko, lehen aipatu ditugun egunetan emititu ziren iluntzeko albistegiaren eduki-azterketa burutu dugu.

### *2.1. Zertaz ari diren hemengo berri-saioak.*

ETB-1en "Gaur Egun" albistegian, hiru notiziatik bi (%69,5) Euskal Herriarekin zerikusia daukate. Zentralitate informatibo hori nagusitu egiten da baita agertzen dituen gaietan, pertsoneietan eta hauek berezkoa duten aktibitate esparruan ere<sup>4</sup>. Hemendik kanpoko pertsoneiak, gertaerak eta lekuak azalduko dituzten notiziek %30,5ko pisua daukate ETB-1en albistegietan. Hala ere, aipatu beharra dago esaten dugunean Euskal Herriarekin erlazionatu daitezkeen berriak ageri direla nagusiki albistegian, ezin dela ahaztu Espainia, Frantzia eta Beste Atzerrietako estatuak presente diren berrietaz ari garela kasu askotan. Alegia, ezin dugu ahaztu Euskal Herriaz erlazionaturik dagoen Athletic-aren ekitaldi batek Espainian ere loturak dituela, izan ere futbol liga Estatu espainiar mailan egiten baita. Ondoko grafikari ikus dezakegunez, Euskal Herriaz huts hutsen baino berri gehiago daude Espainia eta Euskal Herria lotuko dituztenak. 3.- Grafika: ETB-1en albistegiak erlazionatzen dituen ingurune geopolitikoak

Informazio saioetan eskaintzen den irudi orokorra zelakoa den ikusi ahal izateko, has gaitezuen beraz, lehenik eta behin, albistegietan agertzen diren notizia guztiak kontuan hartuko dituen azterketa mailaz. Eta, lehendabizi notizietan jorratzen diren gai zeintzuk diren ikusiko dugu. 4.- Grafika: ETB-1en "Gaur Egun" albistegian ageri diren gaiak (1998) Goiko taulan agerian dagoen legez, zalantzarik gabeko esparru tematikoa proposatzen digu ETB-1ek bere albistegietan. Politikaren nagusitasunari Gizartea (Teknologia eta Ekonomia bere barne dituelarik) gehituz gero, notizien %80,2ra heltzen da kopurua. Kirol programazioa, prime-timean bereziki, hain altua duen kanalak bere albistegietan ez die leku askorik uzten futbola, pilota edota arraunketa bezalakoek. Aipatutakoek gain, Kultura (%5,3), Eguraldia (%4,6) eta Euskara (%2) gai modura duten berrien presentzia apala da.

### *2.2. Aktualitatearen protagonistak.*

Notiziak, tematikoki, Politikarekin eta Gizartearekin lotuta dauden bezala, bertan ageri diren pertsoneiak, bi "mundu" horiekin erlazionatuta ageri zaizkigu. ETB-1eko albistegi dagokionez, protagonismoa eskuratzen dutenen artean Politika eta Estatuko administrazioan ari diren pertsonen/erakundearen presentzia %47,7a da. Gizarte arlotik etorritakoena, aldiz, %23,2a da. Gainontzekoaren pisua informatiboak ez da ehuneko hamarrera heltzen. 5.- Grafika: ETB-1en "Gaur Egun" albistegian ageri diren protagonisten arloa

Notizien protagonistak diren horien izaera sozialean<sup>5</sup> sakontzea ere interesgarria da. Izan ere, alderdi politiko eta erakunde administratibo-politikoetako partaideak dira nagusitzen direnak: %62,9. Sozio-politikoki bestelako nortasuna duten pertsoneiak, banakoak edota eraketarik gabeko taldeetako ordezkariak ez dute horrenbesteko aurkezpen mailarik eskuratzen. Beraz, Gaur Egun albistegian antolaketa sozial konplexua duten pertsoneiak dira sarriren ageri direnak. 6.- Grafika: ETB-1en "Gaur Egun" albistegian ageri diren protagonisten izaera sozio-politikoak (1998)

Izaera sozio-politikoaz gain, berrietako protagonista izatera iristen diren pertsoneia horiek nondik etorriak diren aztertu dugu. Modu honetara, ondoko azpiatalean sakonduko dugun bezala, informatiboki definitu eta proiektatzen den lurraldea zelakoa eta norainokoa den jakingo dugu.

Albistegietako protagonistei dagokionez, Euskal Herriko nonbaitetik etorritakoaren presentzia %52,3a da, Beste Atzerrietakoena %30,5, Espainiakoena %15,9koa eta Frantziakoena %1,3koa.

Goiko grafikaren bidez, informazioaren protagonismoa heltzeko gauza kontsideratu dituztenak nongo jatorria daukaten dakigu eta beraz, albistegietan zirriborrotzen den lurraldeak non dituen mugariak.

### 2.3. Nongo berriak ikusgai.

Notizietan ageri diren protagonisten jatorriaz gain, berriak non lekutzen diren aztertuz, albistegietako esparru geopolitikoa nongoa den jakin daiteke. Lehenari dagokionez, ikusi dugun bezala, albisteetako protagonisten erditik gora (%52,3) Euskal Herrikoak dira. Lurraldetasuna markatzen duten faktoreetako bigarrenari dagokionez, ETB-1ek aipatzen dituen berriak hiru harmailetan antolatu daitezke: Euskal Herria, Espainia eta hauetatik Kanpoko erreferentzia erakusten dutenak. Albiste diren gehienak Euskal Herriko tokiren batean gertatutakoak dira (%57,6), Beste Atzerrietan suertatuak izan arren hemen notizia direnen kopurua %28,5a da eta, azkenik, Espainia kokaleku gisa dutenena %13,2a.

Euskal Herritik etorritako berriak nagusi dituen albiste saioan, esparru geopolitiko (herrialdea, komunitate autonomoa, Hegoaldea, Iparraldea ala Euskal Herria bere osotasunean) guztiek ez dute pisu bera eskuratzen. Alegia, herrialdea da notizigarritasun gehien eskura-tzen duen esparru geopolitikoa. Nafarroa (bietara, herrialde eta komunitate autonomo gisa kontsideratu daitekeena bestalde) da, %15,9az, albiste gehien dakarrena, Bizkaia (%12,6) bigarren eta Gipuzkoa (%9,3) eta Araba (%8,6) atzetik datoz. Beraz, herrialdeak izaera informatibo markatuena du, komunitate autonomoa, Hegoaldea edo Euskal Herria bere osotasunean hartuta baino.

Bestalde, notizia non sortu den galderari erantzunez probintzi mailako pisua azpimarratu beharra dugun bezala, Hegoaldea (%2,6) eta Euskal Herria (%2) izendatu ditugun demarkazio geopolitikoek ez dute ia lekurik, Iparraldeak hutsa duen bezala. Euskal Autonomi Erkidegoak, bere osotasunean hartuz, pantailaratzen diren notizien %6,6koa eskuratzen du. 8.- Grafika: ETB-1en "Gaur Egun" albistegian ageri diren notiziak non gertatu diren (1998)

Goiko grafikan ikus daitekeenez, Estatu espainiarretik eta frantziaretik haruntzago gertatu izan diren berriek berebiziko lekua eskuratzen dute ETB-1eko albistegietan. Notizia diren lautik bat baino gehiago Europa, Estatu Batuak edota Hego Amerikan suertatuak dira.

Nongo berriak aipatzen dituzten jakiteaz gain, interesgarria zaigu, oso, ETB-1en deskribatzen diren gertaerek norainoko eragin geopolitikoa daukaten, alegia berrietako gertaerek nora zabaltzen duten bere itzala. Esate baterako, Eusko Legebiltzarrean eginiko bilera baten ILP delako legea eztabaidatu dute. Notizia Gasteizen kokatua dagoen arren bere eragin esparrua Euskal Autonomi Erkidego osora zabaltzen du.

Notizien eragin honi dagokionez, Beste Atzerrikoa eta Hegoaldea izendatu ditugunak ageri zaizkigu esparru nagusi modura. Lehen, notiziak non kokatzen diren aipatu dugunean esandakoaren ildotik, nazioartean eragina duten berriak dira ugariena (%30,5) "Gaur Egun" albistegian.

Geurera itzuliz, aipatuak ditugun datuen ondorioz-edo, herrialde desberdinetan gertatu izan diren notizia asko eta asko Araba, Gipuzkoa, Bizkaia edo Nafarroa baino haruntzago dute proiektzioa (Hegoaldea, Euskal HerriaÉ). Modu batera ala bestera Hegoaldean eragina duten ekintzak dira sarrien telebistaraten dituztenak: %29,8a. Informazio saioetan eraikitzen diren beste esparru geopolitiko batzuk dira, hurrenik hurren, Euskal Herria (%11,7) eta Euskal Autonomi Erkidegoa (%10,6). Gainontzeko erreferentzia dakarten notizien presentzia ez da oso handia. 9.- Grafika: ETB-1en "Gaur Egun" albistegian ageri diren notiziak non duten eragina (1998) Beraz, notizien eraginari buruz orain arte aipatutakoaren ondorioz, Euskal Herriko maila geopolitiko desberdinek leku handia (%69,6) eskuratzen dute albistegietan. Lehen ere esan dugun bezala Beste Atzerrietan eragina duten berrien portzentaia %30,4koa da. Aldiz, Iparraldea, Espainia eta Frantzia desagertu egiten dira erabat notizien proiektzioa jasotzeko orduan.

### 3. Euskal Herriaz informatuz.

Albistegiak, oso-osorik hartu, hustu eta azertu ondoren lortutako emaitzak landu ditugu orain arte, hemendik aurrera aldiz Euskal Herria hizpide dutenak soilik jorratuko ditugu lerro gutxi batzutan. Horretarako, berrietako gaiak, pertsonaiak edota aipatzen diren tokiak Euskal Herriaz erlazioaturiko kasuetan zentratuko gara, gainontzekoak alde batera utziz.

Estatu frantziarretik eta espainiarretik haruntzago berriak dira txokoratu ditugun ia bakarrak, bi estatu hauetatik bigarrena ia gehienetan Euskal Herriarekin erlazioaturik ageri baita. Beraz, Beste Atzerrikoak

konsideratu ditugun notizia horien portzentaiak, kasu gehienetan, Euskal Herriak eskuratu ditu eta ez Espainiak galtzeko, bere horretan mantentzen baita esparru geopolitiko horren presentzia informatiboa. Ikus dezagun grafika batez, "Gaur Egun" albistegian Euskal Herriaz ari diren berrietan zein esparru geopolitikoarekin egiten den lotura. 10.- Grafika: "Gaur Egun"-go Euskal Herriari buruzko notizien lotura geopolitikoak (1998) Euskal Herriari buruzko berrietan jorratzen dituzten gaiak, albistegia bere osotasunean hartuta bezalako kopuruak erakusten ditu. Alegia, Politikarekin eta Gizartearekin berrien nagusitasuna agerian dago, gainontzeko esparru tematikoen kalterako.

Informazioaren protagonistei kasu eginez, Politika (%44,5) eta Estatuko zein zein bertako Administrazioan (%11) aritzen direnen presentzia oso altua dela ikus daiteke. Gizarte alorreko pertsonaia zein erakundeen agerpen maila ehuneko 15,7koa da, hortik behera gainontzeko taxonomiek ez dute ia lekurik lortzen.

Lehen ere ikusi dugun bezala, albistegiaren edukia aztertzerakoan oso interesgarria da aipatzen diren berriak non gertatuak diren eta non duten eragina. Lehenaren kasuan, Euskal Herriko nonbaiten (herri mailakoetatik hasi eta Euskal Herri osoa kokaleku gisa hartuko dutenak sartuz) izan diren gertaeretan oinarritutako berrien %81,3 Euskal Herriaren erreferentzia erakusten dute, ondoren dator Espainia ehuneko 12,1az. Notizien kokapen zehatzagoetara joz, herrialdeen presentzia sendotu egiten dela ez dago zalantzarik, maila beretsuan egiten du gora EAEk eta Hegoaldeak. Ondoko grafikan ageri dira notizien kokapenak albistegi osoa kontuan hartuz ala Euskal Herriaz erlazionaturiko notiziak bakarrik zenbatuz. 11.- Grafika: "Gaur Egun" bere osotasunean versus Euskal Herriko notizietan ageri diren gertaeren kokalekuak (1998) Notizia bilakatzen diren gertaeren eragin geopolitikoari buruz, noski, aipatu besterik ez dugu egingo Euskal Herria bere osotasunean ala parte desberdinak ageri direla berriaren eragin esparru nagusi gisa.

#### **4. Konklusioak.**

-ETB-1en parrilan, besteak beste, Dokumentala gehi Magazina gehi Erreportaia genero multzo gisa eskuratzen duten denborari (%25), Haur/Gazteentzako (%24,4) saioena eta aktualitatearekin (Albistegiak, eta Kirolak) lotutako pisua (%24,1) gehituz gero, betetzen da ia emanaldi osoa. Euskarako kanalaren programazioaren ikuspegi orokorra amaitzeko, gogoratu, hamar ordutik zazpi Euskal Herrian ekoiztutako produktuez osatuta dagoela.

-Egun osoko emisioan ematen diren joera batzuk azpimarratu egiten dira prime-timean. Esaterako, Euskal Herriaren zentralitatea bai bertan ekoiztuak direlako programa gehienak baita bertokoak direlako ageri diren pertsonaiak, lekuak eta gai gehientsuenak. Emisio hizkuntza, jakina den bezala, euskara da, portzentualki garrantzirik gabeko salbuespen txiki batzuetan izan ezik.

Prime timean bestalde, ez da ia errepikapenik ematen eta genero gisa, entretenimenduaz zerikusia dutenen presentzia azpimarratu egiten da: Kirola, Fikzioa eta Magazinak. Egun osoko emanaldia erreferentzia gisa hartutakoaren kontrara Haur/Gazteentzako programazioak ez du lekurik aurkitzen iluntzeko ordu preziatuetan, antzerako kasua da Erreportaia.

-Albistegien edukietan arakaturik bi ideia ageri dira indar handiz. Lehena, Politikak, gai modura eta bere inguruan dakarren protagonistak direla medio, pisu handia duela "Gaur Egun" albistegietan. Bigarrenik, eta lehenaren zeharkako ondorio gisa: Euskal Herria eraikitzen dela esparru geopolitiko erreferentzial gisa. Euskal Herriarekin erlazionaturik ageri diren notizia asko eta asko bestalde Estatu espainiarraren mugarrizkoak ezartzen dituzte notizien edukietan eta albistegiaren marko orokor modura. Edozelan ere, notiziak non gertatu eta non eragina duten aztertzerakoan Euskal Herriko toki desberdinetatik etorritakoak (57,6) edo eragina bertara zabaltzen dutenena (%69,6) altua da. Ohi bezala, notizia iturburu gisa hiriburuak eta herrialdeak ageri dira nagusiki, eta eraginetan aldiz esparru zabalagoak zirriborratzen dira: EAE, Hegoaldea edo Euskal Herria bere osotasunean.

"Gaur Egun"-era protagonista bezala iristen diren pertsona edo erakunde gehienek eraketa sozio-politiko konplexua dute, gizabanokei eta talde ez-formalei utzitako lekua txikiagoa (%24,5) delarik. Horrez gain, eta aipatu dugun Politikaren nagusitasunaz baliatuz, informazioen protagonistak Politika eta Administrazioaren mundutik datoz kopurua handi batean (%47,7an).

-Euskal Herriaz ari diren berrietan bakarrik zentratuz, aipatzekoa da albistegi osoan ematen diren joerak sendotu egiten direla hemen. Esate baterako, Politikak gai modura pisu gehiago lortu egiten duela aipatu behar da, Gizartearekin erlazionaturiko notizien kalterako. Hala ere, gainontzeko faktoreetan, Beste Atzerrietako berriak kentzeak, Euskal Herriarenak indartzea ekarri duen bezala Espainia eta bi hauen arteko erlazioak gora egitea ekarri du, ondorio gisa.

---

### **Erreferentzia Bibliografikoak**

Altheide, D. (1976): *Creating reality*. Beverly Hills. Sage

Alvarez Monzoncillo, J. M. (1997): *Imágenes de pago*. Madril: Fragua

Arana, E. (1995): *Gizarte eta Nazio errepresentazioa telebista-albistegietan*. Euskal Herria Teleberri, Telenavarra eta Telenorte albistegietan.. Leioa. EHUko Argitarapen Zerbitzua.

Arana, E. (1996): "Telebista-albistegiak: diversitas inter pares". *Uztaro*, 19, pp. 41-54.

Arana, E. (1998): "Telebista pribatuen eragina programazioaren bilakaeran", *Zer*, 1998, pp. 317-336.

Arana, E. et al (1999): "ETB-1en Eskaintza", *Euskonews and Media*, Eusko Ikaskuntza, 1999, 23 zkia. (<http://www.euskonews.com>).

Bardin, L. (1977, gaztelarazko lehen edizioa 1986): *Análisis de contenido*. Madril: Akal.

Berger, P. eta Luckmann, T. (1. ed. gazt.): *La construcción social de la realidad*.. Buenos Aires. Amorrortu.

Blum, R. eta Lindheim, R. (1989): *Programación de las cadenas de televisión en horario de máxima audiencia*. Madril: IORTV.

Castilla, M. (1996): "Análisis cualitativos de audiencia" en los XV-UPV-EHUko Udako Ikastaroen barruan *La investigación de audiencia y de programación y el futuro de la TV izeneko kurtsoren barruan*. (faksimila)

Eastman, S. T. eta Ferguson, D. A. (1997, bosgarren edizioa): *Broadcast/Cable Programming*. Belmont: Wadsworth.

E.I.T.B. (1997): *Euskal Irrati Telebista 1982-1997*. Iurreta: EITB.

García, B. eta Perales, A.: "Los informativos de televisión: un modelo más allá de las diferencias". *REIS*, 57, pp. 137-147.

G.E.C.A. (1997 eta 1998): *Anuario de la televisión*. Madril: Geca

Krippendorff, K. (1980, gaztelarazko lehen edizioa 1990): *Metodología de análisis de contenido*. Teoría y práctica. Bartzelona: Paidós.

Kultura Saila. Eusko Jaurlaritza (1992): *Euskal Telebista Informe*. 1992. (faksimila)

Matelski, M. (1992): *Programación diurna de televisión*.. Madril: IORTV.

Prado, E. (1992): "Tendencias internacionales de programación televisiva", *Telos*, 1992, pp.66-71.

Prado, E.; Huertas, A. eta Perona, J.J. (1992): "España: nuevos modelos de programación", Telos, 1992, pp. 72-84.

Sofres, A.M. (1993, 1994, 1995, 1996 eta 1997): Anuario de Audiencias de Televisión. Madril.

Vaca, R. (1997): Quien manda en el mando. Madril. Visor.

Vidal Beneyto, J. (Znd.) et all (1985). Telediaros y Producción de la Realidad (faksimila). UIMP eta RTVE.

Zabaleta, I. (1997): Komunikazioaren ikerkuntzarako metodologia. Bilbo: UEU.

ZZ.AA. (1991): La televisión que viene. Leioa: UPV-EHU.

ZZ.AA. (1992): Innovaciones en programas de radio y televisión. Leioa: UPV-EHU.

ZZ.AA. (1993): Audiencia y Programación. Valentzia: RTVV.

---

## Notak

1. Hedabideak eta Identitate kolektiboa azertzeko eratu eta Euskal Herriko Unibertsitateak finantziaturiko (UPV 016.323-HA 159/97) ikerketaren partaideak dira artikulu honen egileak.

2. Hemen agertzen diren kopuruak genero bakoitzari dedikaturiko denbora portzentaietan oinarrituta daude. "Egun osokoa" deiturikoak emanaldiaren 24 orduak hartzen ditu kontuan. Prime-timeak aldiz 20.30tik 24.00ra bitarteko orduak bakarrik azertzen ditu.

3. Prime-timean bezala asteburuetan, Kirolak eskuratzen duen lekutzarra azpimarratzekoa da. Esaterako, larunbatetan, egun osoko emanaldia kontuan hartuz, denboraren %50,1a kirolari dedikatzen dio ETB-1ek, igandetan bestalde %42,1a.

4. Notizien inplikazio geopolitikoak, aktoreak nongoak diren edota deskribatzen diren gertaerak non suertatu eta non duten eragina kategoriak esparru eskluyente gisa definitu ditugu. Alegia, eta adibide modura, Arabako Foru Aldundiak, herrialde historiko horretako errepideak berrituko dituela erabakitzeo, Gasteizen eginiko bileraren berria ikertzerakoan, notizia Gasteizen kokatu dugu eta eragina Araban. Gainera, protagonista dugun erakundea arabarra dela esango dugu, zalantzarik gabe. Hiriburu berean Eusko Jaurlaritza biltzen bada baskongadetan eragingo duen zerbait eztabaidatzeko, notizia Gasteizen kokatu baina eragin esparrua Euskal Autonomi Erkidegora zabalduko dugu. Kasu horretan protagonista EAeko delako esango dugu. Euskal Herria aipatzen dugunean, sei herrialdetan aritu, bertakoak izan edota horretara mugatuko direnen notizien eragina jasoko dugu. Espainia edota Frantzia izenaz, aldiz, Euskal Herriatik kanpo gertaturiko berrien esparru geopolitikoak adierazi nahi dugu, beti ere estatu bi horien baitakoa. Beste Atzerriak da Espainia eta Frantziatik haruntzagoko lurraldeak izendatzeko erabili dugun etiketa.

5. Notizietan ageri diren protagonistak aztertzerakoan, sei multzo definitu ditugu: "Banakoa" (jende soltea), eraketa sendorik ez duen "Talde ez-formala" (futbol zaleak, erosleak), "Talde formala" (sindikatuak, alderdi politikoak, mugimendu sozialak), Erakunde politiko-administratiboak (diputazioa, gobernu zibila), "Inpertonala" (eguraldia, zortea) eta "Bestelakoak" (aurrekoetan sartzen ez direnak). Eraketa sozialaren arabera antolatutako sailkapen honen bidez, notizien protagonistak eta beraz, aktualitatearen bidez Euskal Herriaren artikulazio sozial eta egituraketa politiko-administratiboaren errepresentazioa zelakoa den jakin daiteke.